

Baltistan fundazioa eta MONDRAGON UNIBERTSITATEA erronkarako prest

2015/04/15

Aste Santua oparoa izan da argazki kopuruan eta Baltistan Fundazioak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK elkarlanean martxan jarri zuten erronkako **lehenengo etapa bete dugu**.

Jada, zuen laguntzari esker, jaso ditugu lehenengo 1000 argazkiak eta bermatu ditugu Baltistango neskatilentzako lehenengo 12 beka.

ESKERRIKASKO parte hartu duzuen guztioi eta **bide horretan jarraitzea eskertuko genizueke**.

Oraindik **argazkirik bidali ez duzuenoi**, erronkaren berri ematen dizuegu jarraian eta **parte hartzera animatzen zaituztegu**.

AZALPENA

Jakinekua da zein zaila den Pakistaneko eskualde askotan eskolara joatea. Are gehiago nesken kasuan. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta Baltistan Fundazioak, berdintasunezko printzipioetan oinarri hartuta, Hushe ibarreko neska eta mutiko guztiek kalitatezko eskolara joateko aukera izan dezaten, **#erronkarakoprest** ekimena sortu dugu, eta zuk ere lagundu dezakezu.

Denon artean, Instagram edo Twitter sare sozialetara 8.035 argazki igotzen baditugu, Hushe ibarreko 100 neskek eskolaratzeko aukera izango dute eta bertako 2 irakaslek formazio ikastaro bat jasoko.

ERRONKA

8.035 argazki lortzea da gure erronka. 8.035 metrotan baitago Gasherbrum IIaren tontorra. Felix Iñurrategik bertatik agurtu gintuen eta gaur berak eta Albertok anaiak Hushe bailaran hasitako lanari bultzada berezi bat eman nahi diogu.

Gasherbrum II mendiaren hegala 8 etapatan banatu dugu eta, etapa bakoitza gainditzean, 12 neskek eskolara joateko beka bana lortuko dute. Azken etapen, gailurrera iristean, 16 neskatilentzako beka bana eta 2 irakaslerentzako ikastaro bana banatuko ditu MONDRAGON UNIBERTSITATEAK. Beraz, proiektua gauzatuz gero, guztira 100 beka eta 2 irakaslerentzako ikastaro banatuko ditugu guztion ahaleginari esker.

Argazki solidarioak

Pakistaneko umeen kalitatezko eskolaratze baten alde, argazki bat atera eta igo zure Instagram edo Twitter kontura hurrengo traola erabiliz: **#erronkarakoprest**

